

Gure mugetatik haratago

Bizitzak aukera desafiatzaileak eta ustekabekoak aurkezten dizkigunean, izutu ere egin gaitzaketenak, argi eta garbi azaleratzen dira gure balioak eta horiek koherentziaz bizitzeko gogoak.

Ez da beti erraza. Gure erantzunak, erabaki aske eta pertsonal bat eskatzen duen egoera batean, apustu zaila dirudi, ia itsu-itsuan salto egitea bezala, eta indarra behar dugu gure mugetatik haratago joateko.

Baina, non aurki dezakegu indar hori? Batzuentzat fedea da, naturaz gaindiko dimentsio batean eta maite eta laguntzen gaituen Jainko pertsonal batean sinesten duena. Aldiz, denontzat lagunen hurbiltasuna izan daiteke, "bidelagunena", haien gertutasuna eta konfiantza sentiarazten dizkigutena. Gure onena ateratzen dute, eta bizitza koherente baten "posibilitatera" iristeko gure ezgaitasunaren itxurazko "ezina" gainditzen laguntzen digute.

Elkarrekikotasunean oinarritutako harremanen dimentsio komunitarioaren ondorioa da. Honela adierazi zuen Chiara Lubich 1948an, garai hartako hizkuntzan: «Eta aurrera! Ez gure indarrarekin, doilor eta ahula, Batasunaren ahalguztiduntasunarekin baizik. Gure leloari leial bagagozkio ... munduak batasuna ikusiko du». ¹

Gure mugetatik haratago joateak aukera eta esperientzia berriak irekitzen dizkigu, bestela gure eskutatik kanpo geratu litezkeenak, itxaropen oro posible dela sinestea eta lekukotzea ahalbidetuz.

Baina Gaizkiaren absurduaren aurrean "dena posible dela" sinets al daiteke? Hori da gizadiaren galdera nagusia gaur eta beti. Erantzunik gabeko galdera horrek denak, sinestunak eta ez-sinestunak, batzen ditu elkarrekin bakarrik egin daitekeen bilaketan. Izan ere, "gaizkia" misterio bat izaten jarraitzen badu, "ongiaren" boterea ere ahaltsua da. Ez dago erantzunik, noranzkoaren aukera baizik?.

Hala berretsi zuen Edith Bruck-ek duela gutxi egindako elkarrizketa batean. Auschwitzera deportatu zuten 13 urte zituenean, eta gaur egun, laurogeita hamabi urterekin, bakearen benetako lekuko izaten jarraitzen du. Gerra amaitu zenean, berak eta ahizpak beren bizitzaren dilema izan zuten. "Nazien alde zeuden bost faxista hungariarrek ezkutuan etxera itzultzen laguntzeko erregutu ziguten, eta bidean lagundu genien. Haiekin partekatu genituen ogia eta txokolatea. Hori izan zen espiritualki bizi izan dudun unerik bizienetako bat. Aita hil izan zezakeen norbait lagun gisa tratatzen ari nintzen". Erabakia ez zen erraza izan, eta asko eztabaidatu zuen ahizparekin, baina egin zuten, pentsatu zutelako agian, horrela, pertsona horiek ez zutela judu bat inoiz gehiago gaizki tratatuko. ²

¹ Chiara Lubich, El primer amor. Cartas de los inicios (1943-1949), Ciudad Nueva, Madrid 2011, or. 180

² Marisol Rojas -Cadena SER- E. Bruck-eri buruzko artikulua 2024/01/26